

GRADU AMAIERAKO LANA

Erizaintzako Gradua – Leioako Atala

Osasun sustapeneko/ heziketako proiektua

Elikadura ohitura osasuntsua
eta ariketa fisikoa sustatzen
osasun mentaleko Eguneko
Ospitaleetan: Emakumeei
zuzendutako Osasun
Programa COVID-19 garaian

2021eko maiatza



AKRONIMOAK

BI – Baimen Informatua

BOMS – Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea

BRIS-MHC – Barcelona Resilience Survey for Mental Health COVID-19

CFCGA – Cuestionario de Frecuencia de Consumo de Grupos de Alimentos

DM – Diabetes Mellitus

E – Erizaina

EL – Erizain Laguntzailea

ESEMeD – European Study of the Epidemiology of Mental Disorders

EUFIC – The European Food Information Council

GMI – Gorputz Masa Indizea

HDL – High-Density of cholesterol Level

HTA – Hipertentsio Arteriala

INE – Instituto Nacional de Estadística

IPAQ – International Physical Activity Questionnaires

KM – Kirol Maisua

N – Nutrizionista

NML – Nahaste Mental Larria

OME – Osasunaren Munduko Erakundea

OP – Osasun Programa

SARS-CoV-2 – Severe Acute Respiratory Syndrome - Coronavirus - 2

SEEDO – Sociedad Española para el Estudio de la Obesidad

SM – Síndrome Metabolikoa

TAK – Tratamendu Atsertibo Komunitarioa

LABURPENA

Sarrera: Osasunaren Munduko Erakundeak, 2020ko martxoaren 11n, Koronabirus gaixotasuna pandemia gisa adierazi zuen geroztik, ezarritako konfinamenduak, kalte psikologiko, fisiko zein sozialak nabarmen areagotu ditu, batez ere, giza talde kalteberenen artean, hots, patologia kronikoak dituzten pertsonak. Konfinamenduaren ondorioz, nabarmen areagotutako inaktibitate fisikoak eta elikadura ohitura ez osasuntsuek erakutsi dute, osasuneko ondorio kaltegarri anitzen indikatzaile adierazgarri direla hots, alterazio metabolikoen areagopena. Honek batez ere, Nahaste Mental Larridun populazioarengan ondorio negatiboak izan dituela baieztatzen da, bereziki, tratamenduaren jarraitasuna oztopatuz eta bizi ohitura ez osasungarrietan isladatuz, populazio orokorrarekin alderatuz neurri handiagoan eman direlarik. Gainera, gaur egungo gizarte patriarkatuek ezartzen dituzten genero desparekotasunek, nahaste mentalen igoerarekin erlazio estua dutela behatu izan da eta hortaz, elikadura ohitura osasungarri eta ariketa fisikoa burutzeak oztopo nabaria suposatzen du, etorkizuneko ongizate eta osasun egoera baldintzatuz.

Helburua: Nahaste Mental Larridun emakumeek sufritzen dituzten genero desparekotasunarekin harremandutako osasunaren desabantailak behatu ostean, Osasun Programa honen helburu orokorra, COVID-19 garaian, elikadura ohitura osasuntsua eta ariketa fisikoa sustatzea da, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Eguneko Ospitaleetako emakumeen artean.

Metodologia eta Osasun Programaren garapena: Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko 17 Eguneko Ospitaleetan asistentzia jasotzen duten Nahaste Mental Larridun emakumeak populazio dianatzat hartuta, genero desparekotasunak suposatzen dituen osasun desabantailak, eta gainera nahaste mentala izatearekin lotuta doazen arrisku faktoreak kontuan izanda, COVID-19 garaian bizi ohitura osasungarriak bereganatzeko ariketa fisikoaren eta elikadura ohitura osasungarrien sustapen programa bat garatuko da. *Osasunaren Sinesmenen Modeloan* oinarriturik, Osasun Programaren saioak 3 sinesmen ardatz gisa izanik garatuko dira; sentikortasunaren, ondorioen larritasunaren eta aldaketei esker lor daitezkeen onuren kontzientziakoa. Osasun Programaren saioak 4 helburu zehatz betetzeko xedearekin, 3 sail ezberdinetan sailkatu dira.

Ebaluazioa eta jarraipena: Ebaluazioa jarraia izango da, programan parte hartuko duten profesionalen eta populazio dianaren partetik burutuko delarik. Ebaluazioa egitura, prozesua eta emaitzen ebaluazioan sailkatuko da. Azken hau, Osasun Programaren aurreko, amaierako eta 6 hilabetera ezarritako kontroleko datuak alderatuz gauzatuko da.

Hitz gakoak: Elikadura ohiturak, obesitatea, gainpisua, COVID-19, isolamendu soziala, genero desparekotasuna, buruko nahastedun pertsonak, ariketa fisikoa

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
<i>Obesitatea eta Sindrome Metabolikoaren erlazioa</i>	1
<i>Obesitatearen datu epidemiologikoak eta eboluzioa mundu mailan, Espainia eta Euskadin</i>	2
<i>Nahaste Mental Larria eta obesitatea COVID-19 garaian</i>	3
<i>Emakumeak, obesitatea eta Nahaste Mental Larria</i>	3
<i>Kausak eta ondorioak: Nahaste Mental Larridun pertsonetan</i>	4
<i>Osasun diagnostikoa</i>	5
<i>Osasunaren sustapena, elikadura ohitura eta ariketa fisikoaren inguruko ebidentzia eskuragarria</i>	7
<i>Ezarpena</i>	7
<i>Justifikazioa</i>	8
2. HIPOTESIA	8
3. HELBURUAK	9
4. METODOLOGIA	9
<i>Diseinua</i>	9
<i>Proiektuko taldea</i>	11
<i>Justifikazio ekonomikoa eta finantzaketa iturriak</i>	11
5. OSASUN PROGRAMAREN GARAPENA	12
6. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	24
BIBLIOGRAFIA	
ERANSKINAK	

1. SARRERA

Osasunaren Munduko Erakundeak (OME), 2020ko martxoaren 11n, Koronabirus gaixotasuna (COVID-19) pandemia gisa adierazi zuen geroztik, mundu osoko herrialde askok, aldentze sozialeko neurri anitz ezarri izan dituzte^{1,2}. Modu honetan, SARS-CoV-2 birusaren hedapena moteldu eta osasun zerbitzuen kolapso arriskua murriztuko litzateke³. Ebidentziak, konfinamendua, birusaren eboluzioan eraginkorra izan dela iradokitzen badu ere², jendea etxean gelditzera behartzeak, kalte psikologiko, fisiko zein sozialak nabarmen areagotzeko arriskua dakar^{1,2}, batez ere, giza talde kalteberenen artean, hots, patologia kronikoak dituzten pertsonak^{2,4}.

Obesitatea eta Sindrome Metabolikoaren erlazioa

Konfinamenduaren ondorioz, nabarmen areagotutako inaktibitate fisikoak edota bizi estilo sedentarioek eta elikadura ohitura ez osasuntsuek erakutsi dute, osasuneko ondorio kaltegarri anitzen indikatzaile adierazgarri direla⁵ eta horrek, gainpisua edo obesitate abdominala, odoleko glukosa mailen igoera, hipertentsio arteriala (HTA), hiperlipidemia eta HDL-ren (High-Density cholesterol Level) murrizketa bezalako alterazio metabolikoak ekar ditzakela⁶. Hauetatik hiruren presentziak, sindrome metabolikoaren (SM) diagnostikoa suposatuko luke, zein nahaste kardiobaskular edota diabetesaren areagotzearekin harremanduta dago⁷.

Bizi ohitura ez osasungarrien ondorio latzen artean, gainpisua eta obesitatea, “*osasunari eragin diezaiokeen gehiegizko koipe kantitate edota kantitate anormalaren metaketa*” gisa **definitzen** dira Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) arabera⁸. Helduetan, gainpisuaren eta obesitatearen neurketa burutzeko, Gorputz-Masaren Indizea (GMI) erabiltzen da, pisua eta altueraren erlazioa adierazten duen indizea⁷, zein “*persona batek kilogramotan duen pisua altueraren karratua metroan (kg/m²) zatituz*”^{7,8} kalkulaten da. Modu honetan Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) gisara, gainpisua Gorputz-Masaren Indizeak (GMI) ≥ 25 kg/m² balioa duenean kontsideratzen da eta obesitatea aldiz, Gorputz-Masaren Indizea (GMI) ≥ 30 kg/m² denean⁷.

Obesitatearen datu epidemiologikoak eta eboluzioa mundu mailan, Espainia eta Euskadin

Nahiz eta natura ezberdinekoak izan, munduak, urteetan zehar inaktibitate fisikoak zein portaera sedentarioek eragindako pandemiarekin batera bizi behar izan du⁹. 2020ko apirilean, OME-k argitaratutako datuen arabera, 1975etik gaur egunera, mundu mailako obesitate **prebalentziak** hirukoiztu egin dira, 2016an helduen (> 18 urte) % 39ak (1.9 bilioi) gainpisua eta % 13ak (650 milioi) obesitatea aurkeztuz. Gainera, 15 urte edo nagusiagokoen % 31, fisikoki inaktiboa da eta urtero ematen diren 3,2 milioi heriotz bizi estilo kaltegarri honi atxikituta daude⁸, faktore eragile hau saihegarria izanik^{8,9}. Honela, OME-ren arabera, obesitatea mendebaldeko herrialdeetako gaixotasun metaboliko prebalenteena da, hilkortasun- eta eritasun-mailen igoeraren kausa printzipala izanik. Gainera, osasun publikoaren aldetik, erlazionatutako eritasunaren albo ondorioen inpaktu negatiboaren eta dakarren kostu sanitarioaren igoeraren ondorioz, arazo handia suposatzen du⁹.

Espainia mailan, INE-k (Instituto Nacional de Estadística) 2017an bildutako datuen arabera, espainiar helduen obesitate mailek 2014tik 2017ra % 0,5eko igoera izan zuten, 2014an % 16,9koa eta 2017an % 17,4koa izanik¹⁰. 2020ko martxoaren 14an ezarritako etxeko konfinamenduko lehenengo bi hilabeteetan zehar, SEEDO-k (Sociedad Española para el Estudio de la Obesidad) burututako ikerketa batek, baieztatu du espainiarren % 49,8 batek pisua irabazi duela itxialdian zehar, gehiengoak (% 86,6) 1-3 kg bitartean irabaziz. Pisua irabazteko **arriku faktore printzipalak**, “**emakumea izatea**” eta gainera, gorputz irudiarekin loturiko “autozainketa maila baxua izatea”¹¹ izan dira. Aurretiaz, “gainpisua izatea” ere, itxialdian zehar pisua irabazteko arriku-faktorea izan da, COVID-19-aren aurrean pronostiko txarrekoa delarik⁴. Modu honetan, estimatzen da, egungo nazio mailako ganpisiu mailak % 60ra igo direla eta obesitatea % 21,6ak aurkeztzen duela¹¹.

Bukatzeko, Euskadi mailan ere, urteetan zehar, gainpisu eta obesitate mailek igotzeko joera izan dutela behatu izan da, (2014an obesitateak % 13ko prebalentzia izanik eta 2017an aldiz, % 13,8) etorkizunean tendentzia berbera izango duela estimatuz¹².



Nahaste Mental Larria eta obesitatea COVID-19 garaian

Aipatu bezala, COVID-19-aren pandemiarengatiko itxialdiak eragindako osasun psikosozialaren narriadurak populazio osoari neurri ezberdinean kaltea eragin badio ere^{2,4}, **inpaktu** nabariena, interakzio sozialak mantentzeko arriskuan dagoen populazioarengan izan du, alegia, Nahaste Mental Larria (NML) duten pertsonak^{4,13}.

NML-ren diagnostikoa duten pertsonak, alderdi patologikoaz gain, amankomunean dituzten hiru ezaugarri betetzen dituzte; diagnostikoaren larritasuna, iraunkortasuna (> 2 urte tratamenduarekin) eta autonomia pertsonalean duen inpaktua, honek alderdi sozialean, familiarrean eta laborean desabantaila nabariak suposatuz¹⁴⁻¹⁶. Adierazitako irizpideek hurrengo diagnostiko taldeei egiten diete erreferentzia: eskizofrenia, nahaste eskizotipikoa edota eldarniozko ideien nahastea, humorearen alterazioak eta helduen portaera edota pertsonalitate nahasteak¹⁶.

Literaturaren arabera¹⁷, NML-dun pertsonetan, egoera estresagarrien maneia zailagoa den heinean, COVID-19-arengatiko pandemiak suposatu duen konfinamenduak kalte nabaria izan du populazio honengan, sostengu psikiatriko eta sozialaren murrizketa suposatuz eta ondorioz, nahastearen eboluzioa aldaratuz^{17,18}.

Barcelona Resilience Survey for Mental Health COVID-19 (BRIS-MHC) ikerketan, konfinamenduko neurriek NML-dun populazioaren eta populazio orokorraren artean izandako inpaktua aztertzen da, zeinetan, konfinamendu neurriek ondorio negatiboak izan dituztela baieztatzen da, bereziki, NML-dun populazioarengan tratamenduaren jarraitasuna oztopatuz. Hau ere, bizi ohitura ez osasungarrietan isladatu da, populazio orokorrarekin alderatuz neurri handiagoan eman direlarik¹⁸. Honek, obesitatearen eta harremantutako sindrome metabolikoaren (SM) igoera suposatuko luke, NML-dun pertsonetan sindrome metabolikoaren (SM) prebalentzia (% 32,5) populazio orokorrarenarekin alderatuz, 2-4 aldiz altuagoa delarik^{16,19}.

Emakumeak, obesitatea eta Nahaste Mental Larria

Obesitatearen prebalentzia orokorrean maila sozioekonomikoa²⁰, ikasketa maila, nutrizioa, osasun asistentzia eta aspektu emozionalengandik baldintzatuta dago, hauek direlarik osasunaren eta bizi kalitatearen indikatzaile printzipalak^{20,21}.



Ordea, gaur egungo gizarte patriarkatuek ezartzen dituzten genero desparekotasunek, hots, maila sozioekonomiko murrizketa, abusu sexual zein fisikoa, lanbide aukera baxua eta hezkuntza maila baxua^{21,22}, nahaste mentalen igoerarekin erlazio estua dute, 2006an ESEMeD-ek (European Study of the Epidemiology of Mental Disorders) eskuratutako datuen arabera, emakumeek jasaten dituzten buruko nahasteak (% 22,93), gizonekin (% 15,7) alderatuz nabariagoak direlarik²³.

Desparekotasun guzti horiek, hezkuntzarako eta osasun asistentziarako sarbide murriztuak batez ere, osasun fisikoaren alterazioarekin erlazionatuta daude^{21,22}, elikadura ohitura osasungarri eta ariketa fisikoa burutzearen aurreko oztopoa suposatuz. Honek, etorkizuneko ongizate eta osasun egoera kaltetuko luke, bizi estilo zein kontsumo pobreetara jotzeko joera eta ondoriozko ingurune obesogenikoaren igoera dakarrelarik²². NML-dun emakumeetan zentratuz, Salut XátivaOntinyent-eko departamentuak Lluís Alcanyis de Xátiva Ospitalean bizi ohitura osasuntsuen inguruan burututako ikerketa behatzaile batean, 90 NML-dun emakume obesoen (% 48,72) eta populazio orokorreko emakumeen obesitate datuak (% 15,44) oso ezberdinak zirela ondorioztatu zen, NML-dun pazienteek ingresuetan zehar, batzaz beste 2,26 kg-ko igoera zutela behatuz, inaktibitate fisikoa eta dieta hiperkalorikoengatik²⁴.

Kausak eta ondorioak: Nahaste Mental Larridun pertsonetan

Orokorrean, NML-dun pertsonetan obesitateak prebalentzia altuagoa duela adierazten duten faktoreak daude, aldagarri zein ez-aldagarri gisa sailka daitezkenak⁷.

Faktore aldagarriei dagokionez, eritasuna baldintza dezaketen sustantzien erabilera, hots, *erretzen* duten kantitate handia (% 70ak erretzen du), daramaten dieta pobrea eta ariketa fisiko eskasa edo eza barnebiltzen dira^{7,16,19}.

Elikadurari dagokionez, behatu izan da, eskizofreniaren espektruko nahasteak dituzten pertsonak, gantz azido aseetan aberatsak eta zuntzan pobreak diren dietak eramateko joera dutela⁷. 2003an McCreadie-k, NML pairatzen zuten 102 pertsonengan elikadura ohituren inguruan eginiko ikerketa batean, asteko fruitu/barazki ale kopuruaren batzaz bestekoa 16 alekoa zela ondorioztatu zen, aholkatutako 35 ale/asteko kantitatearekin alderatuz (5 ale/egun)¹⁹. Horrez gain,

Elikaduraren inguruko Europar Kontseiluak (EUFIC- The European Food Information Council) adierazi bezala, pertsona baten elikadura, egoera ekonomikoarengatik baldintzatuta egon daiteke, ingresu maila baxuko pertsonak dieta ez orekatuak, hots, fruitu edota barazkietan pobreak diren dietak eta elikagai prozesatuetan aberatsak direnak kontsumitzeko joera izanik. Guzti hauek malnutrizioaren eragile izan ohi dira, luzaroan nahaste metabolikoak sufritzeko arriskua areagotuz²⁰.

Aktibitate fisikoari dagokionez, OME-k, *inaktibitate fisikoa* herrialde garatuetako heriotz kausa ohikoenetarikoa gisa identifikatzen du⁹, NML sufritzen duten pertsonen fisikoki inaktiboago izateko joera izanik^{16,20}. Honetan, hartzen dituzten antipsikotikoen albo ondorioek (efektu lasaigarria) eragina izan dezaketela justifika daiteke^{7,19}, baita gaixotasunak berak aurkezten duen kognizio edota muga fisiko-psikologikoen ere¹⁹.

Aldaezinak diren faktoreei dagokienez, behatu izan da, SM-aren garapenean, *patologia mentalak* berebiziko eragina duela, asetasunarekin harremandutako neurotransmisoreen alterazio zentralak asetasun sentzazioa inhibitzen baitute^{7,16}.

Gainera, ebidentzian oinarritutako ikerketa askok adierazi dute²⁴, NML pairatzen duten pertsonen eritasun- eta hilkortasun-tasa altuagoak izateko joera nabariagoa dutela, nahastearekin erlazionatutako kognizio eskasiak edota minarekiko gehiegizko tolerantziak eraginda, ez baitie sintomatologia identifikatzen baimentzen, osasun egoera larriagotuz^{24,25}. Bestalde, jasotzen dituzten zainketa fisikoen kalitatea, populazio orokorrarenarekin alderatuz, txiroagoak izaten dira osasun arreta zerbitzuetarako sarbide murriztuagoa dutelako^{16,25}.

Bukatzeko, desabantaila guzti hauei, *antipsikotikoekiko* esposizioak izan dezakeen ekintza gehitu behar zaie^{7,25}, SM prebalentziaren igoera dibentzodiazepinen deribatuetan diren 2.belaunaldiko antipsikotikoak diren Klozapinaren ® edota Olanzapinaren ® albo ondorio latzekin harremanduz¹⁹. Hala ere, orokorrean, genetika, nahaste mentala eta medikamendu antipsikotikoen albo ondorioen arteko **interakzioa** izan ohi da arazo metabolikoen eragile printzipala⁷.

Osasun diagnostikoa

Bizkaiko biztanleria 2020an 1.149.044 pertsonakoa izan da, 20-64 urte bitartekoek % 59,63a osatuz (658.165 pertsona). Haietatik, 345.546 emakumeak izan dira²⁶.



2018an Osakidetzak gauzatutako Euskal Osasun Inkestaren arabera, bizi-itxaropena 86,5 eta 80,3 urtekoa izan zen emakume eta gizonetan, hurrenez hurren. Hala ere, 2013ko inkestarekin alderatuz, ezintasunik gabeko **bizi-itxaropenak** gizonen artean 1,2 urteko igoera eta **emakumeetan aldiz 0,3 urteko jaitsiera** izan zuen²⁷.

Osasunaren autopertzepzioari dagokionez, emakumeetan txarragoa izan ohi dela isladatu zen, % 84ak osasun “ona” edo “oso ona” adierazi zuelarik, gizonen artean % 87a izanik. Joera honek, bi sexuetan adinarekin txarrera egiten duela behatu izan da eta gizarte klaseak eta ikasketa mailak ere, pertzepzio hau baldintzatzen dute, osasun “ona”-ren proportzioak behera egiten duelarik gizarte klasean behera egin ahala. Gizarte klasearen bereizketa honek ere osasun arazo kronikoen maiztasuna areagotzea eragiten du, V. taldeko* gizonen % 46ak eta emakumeen % 50ak arazo kronikoren bat dutelarik, I. taldeko* gizonen eta emakumeen % 37 eta % 36arekin alderatuta. Obesitateak ere prebalentzia handiagoa du gizarte-klase edo hezkuntza-maila baxuagoa eta desabantaila sozioekonomikoak sufritzen dituztenen artean²⁷.

Osasun mentalari dagokionez, Osakidetzaren barneko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareak (BOMS) 2019an eskeinitako zerbitzuak 54.057 helduk (18 urtetik gora) jaso zituzten, haietatik, % 17a Ospitalizazioa ekiditeko Bitarteko Egituren parte diren Eguneko Ospitaleak eta TAK (Tratamendu Atertibo Komunitarioa) zerbitzuetan emanez²⁸. 2012an eskeinitako zerbitzuen arabera, Osakidetzan, % 53a emakumeak ziren, modu honetan, “**emakumea izatea**” zerbitzu psikiatrikoak erabiltzeko aldagai auresangarria dela esan daitekelarik eta ondorioz, giza-talde honen kalteberatasuna nabariagoa da²³.

Datu hauek kontuan hartuta, NML-dun emakumeek elikadura ohitura osasuntsu eta ariketa fisikoaren sustapenean oinarritutako interbentzioa jasotzeko ezaugarriak betetzen dituztela esan daiteke.

* I.taldea – zuzendariak, gerenteak, goi-teknikariak eta abar

* V.taldea – langile ez-kualifikatuak

Osasunaren sustapena, elikadura ohitura eta ariketa fisikoaren inguruko ebidentzia eskuragarria

NML sufritzen duten pertsonetan, osasun egoera hobetzeko asmoz, bizi estilo aktiboago bat eramateak, erronka handiagoa¹⁸ suposatzen badu ere, ukazina da ariketa fisikoa egiteak edota elikadura orekatu bat eramateak eurengan izan ditzakeen onurak, patologia mental zein fisiko anitz saihestu, hasiera murriztu edota maneian lagungarri izan daitezkelako^{24,29}. Gainera, halako pazienteetan osasun fisikoaren babes eta sustapena, lehenetsuneko interbentzio bidea kontsideratzen da ikuspegi etiko zein osasun publikoaren ikuspegitik, izan ere, pertsonen oinarrizko eskubideen babesari eragiten die, bizi kalitatea baldintzatuz^{15,16}. Tratamendu aukera anitz badaude ere, eraginkortasun handiena, bizi estiloaren interbentzioek izan dute²⁹, honi esker, bizi ohitura kaltegarrien prebentzioa lortuko baita⁸.

2015ean burututako meta analisi batean, 20 ikerketatik identifikatu zen ariketa fisikoak NML-dun pertsonetan GMI-an efektu adierazgarriak izan ez arren, egoera fisikoa hobetu eta arrisku kardiometaboliko anitzen prebentzioa burutu zezakela. Gainera, asteko 90 minutuko aktibitate fisikoaren burutapenak, sintoma psikiatrikoen murrizketa nabarmena suposatzen du, kognizioa, funtzionamendua eta patologia mentalarekin harreman dutako nahaste kolateralak hobetuz³⁰.

2012an burututako beste errebisio sistematiko bateko 10 enquetatik 6 ikerketek ariketa aerobiko eta indar ariketak kontuan hartu zituzten, haietako 2 ikerketetan yoga teknikak ere aztertuz. Behatu izan da, guzti hauek sintoma psikiatrikoekin harreman dutako antsietate egoerak murriztu edota ongizate psikologikoa eragiten dutela, onura nabariena ariketa fisiko aerobioak izan duelarik. Horrez gain, behatu izan da, elikadura osasuntsuak ariketa fisikoarekin konbinatuz pazienteen pisuarengan eta triglizerido mailen, kolesterol mailen eta insulina edo glukosa plasmatikorengan onurak eragiten dituela³¹.

Ezarpena

Euskadiko Osasun Sistema, hau da, Osakidetza, Zerbitzu Erakundearen Organigramaren arabera, osasun asistentzia eskeintzen duten 3 Osasun Barrutitan sailkatuta dago, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba³². Bizkaiko Osasun Barrutiak

eskeintzen dituen zerbitzuen tartean, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea (BOMS) aurkitzen da, non, NML sufritzen dituzten pertsonetan, ospitalizazioa ekiditeko beste hautagai diren Bitarteko Egitura batzuk existitzen dira, Eguneko Ospitaleak edota Tratamendu Atsertibo Komunitarioak (TAK) kasu²⁸. BOMS, era berean, 4 eskualde ezberdinetan zehar banatuta dauden 17 Eguneko Ospitalez osatuta dago, guztira 550 paziente artatuz³². Eskualdeak Bilboko Eskualdean, Uribe Eskualdean, Ezkerraldeko Eskualdean eta Barnealdeko Eskualdean sailkatzen dira²⁸. Bitarteko egitura hauen helburua, NML pairatzen duten pertsonen jarraipen trinkoa, errehabilitazioa eta sostengu soziala eskuratzea da, sarbide errazeko baliabideak, interbentzioak eta aktibitateak eskeiniz¹⁴⁻¹⁶.

Justifikazioa

COVID-19-arengatik konfinamenduak NML-dun populazioarengan suposatutako inaktibitate fisikoaren eta elikadura ohitura ez osasuntsuen areagopena behatu ostean¹⁷, osasun egoera baldintza dezaketen arrisku faktoreak, dieta ez-osasuntsuaren, sedentarismoaren eta drogen kontsumoaren arteko elkarrekintzaren ondorio direla behatu izan da^{7,18,24}, guzti hauek faktore aldagarriak izanik. Honi, genero desparekotasunak suposatzen dituen osasuneko desabantailak gehituz gero^{21,22}, NML-dun emakumeak giza-talde kalteberak direla egiazta daiteke, bizi estilo ez osasungarriek suposa ditzaketen albo ondorioak pairatzeko arriskua areagotuz¹⁶. Hori dela eta, osasunaren sustapenean oinarritutako interbentzioen eraginkortasunaren inguruko ebidentzia eskuratu ostean, Osasun Mentalean espezialistak diren erizainek zuzendutako elikadura ohitura osasuntsuaren eta ariketa fisikoaren sustapen programa baten ezarpena zentzuzkoa litzateke, bizi ohitura ez osasuntsuekin erlazio estua duten alterazio metabolikoen agerpena saihesteko.

2. HIPOTESIA

COVID-19 garaian ezarritako etxeko itxialdiak areagotutako osasun fisiko eta psikosozialaren narriadurak, inpaktu nabariena giza talde kalteberenen artean izan duela ikusi izan da, hots, patologia mentalak dituzten pertsonak. Honi, aurretiaz emakumeek, eta batez ere, NML-dun emakumeek jasandako osasun zerbitzuetarako sarbide murriztuak eta baita generoarekin harremandutako osasun desparekotasunak



gehitu behar zaizkio, bizi ohitura ez osasungarriak bereganatzearekin lotura estua izanik.

Modu honetan, COVID-19 garaian, NML pairatzen duten emakumeetan bizi ohitura osasungarriak bereganatzeko erraztasunak eskeintzeko, osasun mentaleko espezialistak diren erizainek ezarritako interbentzioa ezinbestekoa litzateke. Osasun programa honen bitartez, elikadura osasuntsuan eta ariketa fisikoan oinarritutako sustapenaren ezagutza areagotuko da, genero desparekotasunak dakartzan desabantailak murriztu eta COVID-19-arengatik ezarritako neurriek eragin dezaketen bizi estilo kaltegarrien prebentzioa eskuratzea lortuko da.

3. HELBURUAK

NML-dun emakumeek sufritzen dituzten genero desparekotasunarekin harremandutako osasunaren desabantailak behatu ostean, OP honen helburu orokorra, COVID-19 garaian, elikadura ohitura osasuntsu eta ariketa fisikoa sustatzea da, BOMS-eko Eguneko Ospitaleetako emakumeen artean.

Helburu orokor hau lortzeko, hurrengo 4 helburu zehatzak garatu izan dira:

- Bizi ohitura kaltegarriekin harremandutako ondorio latzen inguruko ezagutza-maila sendotzea.
- Elikadura osasuntsu eta bizi estilo aktiboago bat eramateak suposa dezakeen antsietatea murrizteko teknikak eskeintzea.
- Eguneko dieta orekatu bat lortzeko fruitu/barazki ale kantitatea areagotzea, 5 ale/eguneko gutxienez.
- Ariketa fisiko maila areagotzea (asteko 150 minutu OME-ren arabera).

4. METODOLOGIA

Atal honetan, diseinuaren, justifikazio ekonomikoaren eta finantzaketa iturrien eta proiektuan parte hartuko duten profesional taldearen deskribapena burutuko da.

Diseinua

Diana populazioa: COVID-19 garaian BOMS-eko 17 EO-etan asistentzia jasotzen duten NML-dun emakumeak.

Partehartzaileak: Esleitutako barne eta kanpo irizpideak (*Taula 1*) betetzen dituzten BOMS-eko 17 Eguneko Ospitaleetako 50 emakume.

Taula 1. OP-aren barne eta kanpo irizpideak	
Barne irizpideak	Kanpo irizpideak
<ul style="list-style-type: none"> • Adin nagusikoa izatea (> 18 urte) • Emakumea izatea • NML izatea (kronikoak > 2 urte tratamenduarekin) patologiaren aro egonkorrean • BOMS-eko 17 Eguneko Ospitaleetako batean ingresaturik egotea • Gorputz Masa Indizea (GMI) $\geq 25 \text{ kg/m}^2$ izatea, hots, gainpisua izatea. • Borondatez Interbentzio Programaren parte-hartzea ontzat ematea, Baimen Informatua (BI) sinatuz • Informazioa jasotzeko edota aktibitateetan parte hartzeko ikusmen-edo entzumen-zailtasunik ez izatea, ezta ezgaitasun intelektualen bat ere 	<ul style="list-style-type: none"> • < 18 urte izatea: 17 urtera arte NML Programa – Nerabeak dago • Gizona izatea • NML-ren diagnostikoa izan arren nahastearen brote-aldian egotea • BOMS-eko Eguneko Ospitale batean ingresaturik ez egotea • GMI $18,5 \text{ kg/m}^2 - 24,9 \text{ kg/m}^2$, hots, pisu normalean egotea. • Interbentzio programan parte hartzeko ezinbestekoa den Baimen Informatua (BI) ez sinatzea • Dementzia edota neurrizko ezgaitasun intelektual zein larria izatea

Parte hartzaileen erreklutazioa: Irailean, Eguneko Ospitaleetan, kurtso berri baten antzera, burutuko diren ekintza guztiak azaldu ohi dira. Egoera aprobetxatuz, 17 Eguneko Ospitaleetako paziente emakumeei Osasun Programan parte hartzearen aukera eskeiniko zaie, proiektua burutzearen arrazoiak zein helburuak jakinaraziz. OP-aren parte izateko irizpide guztiak behin azalduta, parte hartu nahi duten emakumeei, izen-ematea hurrengo posta elektronikoa (osasunprograma.boms@gmail.com) edota emakume bakoitzak bere EO-an partehartzeko nahia adieraziz burutu beharko dutela adieraziko zaie, baita Baimen Informatua (BI) sinatzearen beharra ere. Gainera, erakargarriagoa izan dadin, 17 Eguneko Ospitaleetan zehar poster batzuk itsatsiko dira. (*1. Eranskina*)

Izen emate epea irailaren 7tik 14ra izango da. Jarraian, aukeraketa burutuko da parte hartuko duten emakumeak 5 talde ezberdinetan banatuz (OP-ak dirauen hilabeteetan zehar berberak izango dira).

Osasunaren promoziorako Modelo/ Teoria: OP Osasunaren Sinesmenen *Modeloan* oinarrituko da. Osasunarekin harremandutako jokabideak zehaztasunez ulertu eta azaltzeko helburuarekin garatu izan zen Becker eta Maiman-en (1975) eskutik. Eredu psikosozial honen arabera, gizabanakoak osasunarekiko portaera

aldatzeko duen probabilitatea, sinesmen ezberdinekin harremantzen du: osasun arazo bat sufritzearen aurreko sentikortasuna, ondorio larriak hautematea, osasunaren prebentzio/ promoziorako jokabide positiboen onurak behatzea, aldaketei esker lortutako onurek oztopo eta muga guztiak gainditzen dituztela hautematea eta aurre egiteko ekintzak burutu behar direlaren beharra onartzea^{33,34}. Modelo edo teoria honetan oinarrituz, OP-aren ekintza guztiak 3 sinesmen ardatz gisa izanik garatuko dira; sentikortasunaren kontzientziazioa, ondorioen larritasunaren kontzientziazioa eta aldaketei esker lor daitezkeen onuren kontzientziazioa. Teoria honek batzen dituen osagaien eta haien elkarrekiko erlazioak hurrengo eskeman laburbilduta agertzen dira (2. Eranskina).

Alderdi etikoak: Partehartzaileek edota beren tutore legalek, OP-an parte hartzeko Baimen Informatua (BI) bete beharko dute. Gainera, Eguneko Ospitale guztietan programaren ezaugarrien azalpena burutuko da eta behin informazio guztia eskeinita, aste beteko epea izango dute parte hartu nahi duten erabakitzeko. Horrez gain, edozein momentutan OP utzi dezaketelaren aukera adieraziko zaie, desabantailak adieraziz. Horrez gain, urtarilaren 11ko 3/2005 Dekretua jarraituz, *Euskadiko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoa*-ri OP-a aurkeztuko zaio, alderdi etikoez arduratzen delarik.

Proiektuko taldea

Taula 2. Programaren giza baliabideak eta bakoitzaren kompetentziak	
Profesionala	Ekintzak eta kompetentziak
Nutrizionista	- Elikadura osasungarrien inguruko heziketa nutrizionala eskeintzea
Osasun mentalean espezialistak diren erizainak	- OP kontrolatzea eta hau zuzentzea - Partehartzaileen ezagutza eta osasun heziketa burutzea - OP-aren eraginkortasuna ebaluatzea
Erizain laguntzaileak	- OP-ko ekintzetan partehartzaileen kudeaketa burutzea - Sesioak antolatzea
Kirol maisua	- Ariketa fisikoaren sustapenerako ezarritako saioetako kirol ekintzak burutzea

Justifikazio ekonomikoa eta finantzaketa iturriak

Proiektuaren burutapenerako beharko diren baliabide ekonomiko guztiak (kalkuluak (3. Eranskina)-an agertzen dira) jarraian azaltzen dira:

Pertsonala: Erizain zein erizain laguntzaileak eta nutrizionista Osakidetzan lan egiten duen pertsonala diren heinean, ez da finantziario ekonomikorik beharko, proiektua osasun komunitarioko osasun sustapenaren parte izango baita. Hala ere, kirol maisuaren kontrataziorako, **980€**-ko finantzaketa estimatzen da.

Material ibilgailua: Ekintzen burutapena, posiblea den heinean aire librean izango da. Ordea, esposizio edota tailerren beharra egotekotan, taldeak 10 pertsonatik gorakoak izango ez diren arren, espazio handi baten beharra dago. Honetarako, BOMS-eko ospitaleetako pertsona guztiak Bilbo edota inguruko udalerrietakoak direla suposatuz, Bilbo erdi-puntu gisa ezarriko da. Sesio hauetarako, Azkuna Zentroko "Iparragirre aretoa" baliagarria izango da, honen erreserbak **5715€**-ko finantziarioa suposatuz. Sukalde baten beharra eskatzen duten sesioetarako, Bilboko Eskualdeko Julian de Ajuriagerrako Eguneko Ospitaleak duen sukaldea eta, ariketa fisikoa suposatzen duten ekintzetarako, Bilboko udaletxeak eskeintzen duen Deustuko patinaje pista municipal aukera egokia izan daitezke. Hauen kasuan ez da finantzaketarik beharko.

Ondasun suntsikorra: Beharrezko materiala Osakidetzak eskeiniko badu ere papergintzarentzako beharrezko finantzaketa **367€**-koa izango da.

Bidaiak eta dietak: Honen barne, Bilbotik kanpo bizi diren parte hartzaileek behar duten garraio bidearen kostua sartuko da, **4440€** estimatuz guztira. Horrez gain, irteeretan, sukaldatze tailerretan eta erosketetan erabilitako elikagai guztien finantzaketa **1725€**-koa izango da.

Modu honetan, OP-aren inplementaziorako beharrezko finantzario ekonomikoa, guztira, **13.042€-koa** izango dela estimatzen da.

5. OSASUN PROGRAMAREN GARAPENA

Atal honetan, OP-aren deskribapena agertzen da, hots, burutuko diren aktibitateak, hauen azalpena, parte hartuko duten pertsonak, beharrezko materiala eta hauen burutapenerako jarraituko den ordutegia (kronograma (*Taula 3*)-n agertzen da).

Ezarrirako lau helburu zehatzak lortzeko asmoz garatu diren ekintzak, helburuaren arabera, 3 sail ezberdinetan sailkatu dira. Hurrengo tauletan, sail ezberdinetan helburu espezifikoak lortzeko xedearekin garatutako saioak eta hauen helburuak zehaztuko dira, bakoitzaren ebaluaziorako indikatzaileekin:

Taula 4. OP-arentzat zehaztutako helburuak lortzeko interbentzioak eta ebaluaketa indikatzaileak.		
1. Saila: Ezagutza		
OP-aren helburu zehatza: Bizi ohitura kaltegarriekin harremandutako ondorio latzen inguruko ezagutza maila sendotzea		
Saioaren helburua	Saioaren izena	Indikatzaileak
1. Talde bakoitzeko partehartzaileen arteko lehenengo kontaktu bat ezartzea eta autoebaluazioa burutzea 2. Osasun arazo bat sufritzearen aurreko sentikortasuna barneratzea, bizi ohitura ez osasuntsuek izan ditzaketen ondorio larriak hautemanez. 3. Osasunaren prebentzio edo promoziorako jokabide positiboan onurak behatzea. 4. Ariketa fisikoaren eta elikaduraren inguruko mitoak ukatzea eta errealitateak aditzera ematea.	<i>EI</i>	* Asistentzia maila * Ebaluazio orrien puntuazioa * Parte hartze maila * Autoezagutza maila eta norberaren autokritika gaitasuna
	<i>III. Ikasitakoa praktikan jartzen</i>	* Asistentzia maila * Ebaluazio orrien puntuazioa
	<i>IV. Mito eta kondairak</i>	* Parte hartze maila * Kontzeptuen barneratze gaitasuna

Taula 5. OP-arentzat zehaztutako helburuak lortzeko interbentzioak eta ebaluaketa indikatzaileak.		
1. Saila: Ezagutza		
OP-aren helburu zehatza: Elikadura osasuntsu eta bizi estilo aktiboago bat eramateak suposa dezakeen antsietatea murrizteko teknikak eskeintzea		
Saioaren helburua	Saioaren izena	Indikatzaileak
1. Bizi estilo osasuntsu bat eramateko orduan ahulguneak detektatzea eta horrek eragin dezakeen antsietatea murrizteko teknikak eskeintzea.	<i>I. Antsietatea murrizten</i>	* Asistentzia maila
	<i>II. Erlaxazio teknikak</i>	* Ebaluazio orrien puntuazioa * Parte hartze maila * Autokonfiantza maila
2. Aurreko sesioetan landutakoa barneratu duten ebaluatzea.	<i>III. Ikasitakoa isladatzen</i>	* Galdetegiko puntuazioa

Taula 6. OP-arentzat zehaztutako helburuak lortzeko interbentzioak eta ebaluaketa indikatzaileak.		
2. Sailsa: Elikadura osasuntsua		
OP-aren helburu zehatza: Eguneko dieta orekatu bat lortzeko fruitu/barazki ale kantitatea areagotzea, 5 ale/eguneko gutxienez		
Saioaren helburua	Saioaren izena	Indikatzaileak
<p>1. Partehartzaile bakoitzaren eguneroko ahoratzea estimatzea eta otordu orekatu baten garrantziaz hezitzea.</p> <p>2. Elikadura osasuntsu eta orekatu baterako mantenu gai eta elikagaien sailkapena burutzea</p> <p>3. Elikadura osasuntsu eta orekatu bat lortzeko, erosketetarako jarraibideak eskeintzea.</p>	<p><i>I. Elikadura ohiturak aztertzen</i></p> <p><i>II. Zer da jan beharko nukeena?</i></p> <p><i>III. Erosketak egitera!</i></p>	<p>* Asistentzia maila</p> <p>* Ebaluazio orrien puntuazioa</p> <p>* Parte hartze maila</p> <p>* Asteko otorduen erregistro orriak</p>
<p>4. Elikagaien manipulazio eta sukaldatze teknika osasungarriak ezagutzea</p> <p>5. Barazki edota tuberkuluen lantzearekin kontaktua garatzea</p> <p>6. Landutakoa praktikan jartzea eta plater osasungarriak sukaldatzea</p>	<p><i>IV. Elikagaiak ezagutzen</i></p> <p><i>V. Baratze ekologikoa</i></p> <p><i>VI. Master chef</i></p>	<p>* Asistentzia maila</p> <p>* Ebaluazio orrien puntuazioa</p> <p>* Parte hartze maila</p> <p>* Platerraren eredua eta originaltasuna</p>

Taula 7. OP-arentzat zehaztutako helburuak lortzeko interbentzioak eta ebaluaketa indikatzaileak.		
3. Sailsa: Ariketa fisikoa		
OP-aren helburu zehatza: Ariketa fisiko maila areagotzea asteko 150 minutu OME-ren arabera)		
Saioaren helburua	Saioaren izena	Indikatzaileak
<p>1. Ariketa fisikoak dituen onura psikologiko, fisiko eta sozialak ezagutzea</p> <p>2. Asmatu riko jokoak praktikan jartzea eta ostean gomendatutako ariketa fisikoarekin alderatzea</p>	<p><i>I. Bizi estilo aktiboago bat daramat!</i></p> <p><i>II. Gure jokoan diseinuak praktikatzten</i></p>	<p>* Asistentzia maila</p> <p>* Ebaluazio orrien puntuazioa</p> <p>* Parte hartze maila debateetan</p>
<p>3. Yogak dituen onurak behatzea eta ohitura bilakatzea lortzea</p> <p>4. Ariketa fisiko aerobikoaren praktika barnertzea</p> <p>5. Oreka eta luzapen ariketen sustapena</p>	<p><i>III. Namaste</i></p> <p><i>IV. Olinpiadak</i></p> <p><i>V. Mendizaleak egun batez</i></p> <p><i>VI. Ezetz erori!</i></p> <p><i>VII. Luzapenak</i></p>	<p>* Asistentzia maila</p> <p>* Ebaluazio orrien puntuazioa</p> <p>* Parte hartze maila</p> <p>* Asteko ariketa fisikoaren erregistro orria</p>

Ondoren saio bakoitzean burutuko diren ekintzen kronograma espezifikoak azalduko dira, bakoitzaren iraupena, edukia, helburua, teknika, partehartzaile eta baliabide material eta pertsonalak zehaztuz.

Taula 8. OP-aren 1.sailean "Ezakutzaren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa		
"Aurkezpena"		
Ordua	Edukiak	Helburuak
17:00-17:30	- Kronograma (<i>Taula 3</i>) azaldu - Hipotesiak, helburuak eta emaitza desiragarriak	- Profesionalekin lehenengo kontaktu bat ezartzea
17:30-17:45	- "Ebaluazio orri"-aren (4. <i>Eranskina</i>) azalpena.	- Asistentzia kontrolatzea - Saioen balorazioa eskuratzea
17:45-18:00	- OP-aren arau zein baldintzak - COVID-19-aren neurri zehatzak	- OP-aren arauak aditzera ematea

Taula 9. OP-aren 1.sailean "Ezagutzaren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa				
"Nire taldekidea ezagutzen"				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
17:00-17:10	Taldea bikoteka banatu	Partehartzaileekin kontaktua ezartzea	Poltsa batetik papertxoak atera	- Aulkiak - orri zuriak
17:10-17:20	Bikotekide bakoitzak 4 galdera egingo dizkio batak besteari (5. <i>Eranskina</i>)	Bikotearen inguruko informazioa eskuratzea	Elkarrizketa (5 minutu bana)	- bolalumak - E eta EL
17:20-17:30	Bikotekide bakoitzak bestearen aurkezpena burutuko du minutu bakar batean	Partehartzaile guztien inguruko ezagutza lortzea	"U" erara eserita aurkezpena	- Hareazko erlojua - E eta EL
17:30-17:40	Orri zuri batean bikotekidearen 2 datu idatzi eta EL-ari eman	Partehartzaileen datuak eta izenak barneratu dituzten ebaluatzea	Jokoa	- E eta EL
17:40-18:00	Ozenez datuak adierazi dagokion emakumearen izenarekin harremanduz			
18:15-18:30	OP-ari esker espero diren emaitzak eta aldaketak adierazi	Autoebaluazioa burutzea	Hausnarketa	- E eta EL
18:30-19:00	Egunerokoan jaten dutenaren /egiten duten ariketa fisikoaren deskribapena + Motibazio maila neurtu	Autoebaluazioa burutzea	Orri zuri batean idatzi	- E eta EL - Aulkiak, orri zuriak eta bolalumak

* **Giza baliabideetan:** (E) erizaina; (EL) Erizain Laguntzailea

Taula 10. OP-aren 1.sailean "Ezagutzaren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa				
"Arrisku faktoreak ezagutzen"				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
17:00-17:15	Tratatu nahi diren gai edo bitxikerien zerrenda burutu.	Dudak ebaztea ezagutza areagotuz	Idea-jasa "Brainstorming"	- Aulkiak - E eta EL
17:20-17:50	NML-dun emakume baten bizipenak entzutea 1.pertsonan + Dudak galdetu	Osasun arazo bat sufritzearen aurreko sentikortasuna barneratzea, bizi ohitura ez osasuntsuek izan ditzaketen ondorio larriak hautemanez.	Testigantza	- Testigantza emango duen emakumea - Proiektorea - Ordenagailua
17:45-19:15	Power point aurkezpena: -SM (obesitatea, HTA, DM, dislipemia, hiperkolesterolemia) -Arrisku faktoreak, ondorio kaltegarriak -Bizi ohitura osasuntsuak	Osasunaren prebentzio eta sustapenerako jokabide positibo onurak behatzea.	Power pointa	- Ordenagailua - Proiektorea - E

* **Giza baliabideetan:** (E) erizaina; (EL) Erizain Laguntzailea
 * **Edukiak:** (SM) sindrome metabolikoa; (HTA) Hipertentsio arteriala, (DM) Diabetes Mellitus, (NML) Nahaste Mental Larria

Taula 11. OP-aren 1.sailean "Ezagutzaren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa				
"Ikasitakoa praktikan jartzen"				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
17:00-17:30	" Aurkezle profesionalak " Bakoitzak gai batean adituarena egitea, gai ezberdinak gainontzekoei aurkeztuz.	Ezagutza areagotu	Aurkezpenak	- E eta EL - Proiektorea eta ordenagailua
17:30-18:30	" Diseinatzaile profesionalak " -Elikadura osasuntsuarekin harremandutako dinamika bat asmatu. (6. Eranskina) -Ariketa fisikoaren sustapenerako joko bat asmatu.	Osasunaren sustapen eta prebentziorako jokabide positibo onurak behatzea	Eskulanak + Imaginazioa	- Kartulinak - Margoak - E eta EL

* **Giza baliabideetan:** (E) erizaina; (EL) Erizain Laguntzailea

Taula 12. OP-aren 1.sailean "Ezagutzaren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa				
"Mito eta kondairak"				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
17:00-17:10	5eko bi talde osatu			- E eta EL
17:10-17:50	" Mito eta kondairak " Zerrendako baieztapenak ZUZENA edo "errealitatea" (kartulina berdea) edo OKERRA edo "mitoa" (gorria) den adierazi	Ariketa fisikoaren eta elikaduraren inguruko mitoak ukatu eta erralitateak ezagutu.	Jokoa (7.Eranskina)	- Kartulina gorriak/berdeak - Proiektorea - Ordenagailua

* **Giza baliabideetan:** (E) erizaina; (EL) Erizain Laguntzailea

Taula 13. OP-aren 1.sailean "Ezagutzaren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa				
"Antsietatea murrizten"				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
17:00-17:30	"Ahulguneak eta indarguneak" Banan banan bakoitzak hartzen dituen ohitura edo jokabide kaltegarriak idatzi proiektorean	Bizi estilo ez osasungarria suposa dezaketen jokabideak ezagutzea	Zerrenda bat osatu	- Aulkiak - E eta EL - Ordenagailua - Proiektorea - E eta EL
17:30-17:50	Jokabide ez osasuntsu hori aldatzeko orduan aurkezten diren zailtasunak adierazi bakoitzak	Bizi estilo osasungarria eramaterako orduan agertzen diren ahulguneak detektatzea	Idea jasa "Brainstorming"	- E eta EL
17:50-18:30	Gainontzekoek, osasuneko profesionalak izango balira bezala, konponbideak proposatu bizi estilo osasungarriago bat lortzeko	Antsietatea areagotu dezaketen oztopo edo muga horiek gainditu	Idea jasa "Brainstorming"	- E eta EL

* **Giza baliabideetan:** (E) erizaina; (EL) Erizain Laguntzailea

Taula 14. OP-aren 1.sailean "Ezagutzaren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa				
"Erlaxazio teknikak"				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
17:00-18:00	"Erlaxazio teknikak" - Mitchell teknika - Jacobsonen teknika - Arnasketa teknikak - Everly eta Rosenfeld-en teknika - Mindfulness teknika	Antsietate egoerak kudeatzen ikasteko teknikak eskeini	Erlaxazio teknikak	- Musika kasetta - E eta EL

* **Giza baliabideetan:** (E) erizaina; (EL) Erizain Laguntzailea

Taula 15. OP-aren 1.sailean "Ezagutzaren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa				
"Ikasitakoa isladatzen"				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
18:00-18:30	"Ikasitakoa isladatzen" Galdetegi grupala (8. Eranskina)	Aurreko sesioetan landutakoa barneratu duten ebaluatzea	Kahoot	- Ordenagailua eta proiektorea - E eta EL

* **Giza baliabideetan:** (E) erizaina; (EL) Erizain Laguntzailea

Lekua: Aurkezpena eta Ezagutzaren 1. Saileko saio guztiak Azkuna Zentroko "Iparragirre aretoan" burutuko dira.

Taula 16. OP-aren 2.sailean "Elikadura ohituren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa				
"Elikadura ohiturak aztertzen"				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
17:00-17:30	"Zer dago nire platerrean?" Plantilla baten bidez aurreko eguneko 5 otorduen deskribapena burutu	Eguneroko ahoratzea estimatzea	Idatzizko taula bete	- Aulkiak - Plantillak - Bolalumak
17:30-17:45	Elikagai eta mantenugai talde ezberdinen azalpena, hauen kontsumo osasungarria adieraziz (9. Eranskina)	Otordu orekatu baten garrantziaz hezitu	Power point	- N - Ordenagailua - Proiektorea
17:45-18:00	SM-ari begira, dieta hipokalorikoak + gantzen murrizketa	Erraztasunak eskeini erreferentzia gisa		
18:00-18:15	Landutakoaren inguruko material baliagarria eskeini (10. Eranskina)	izateko		
* Giza baliabideetan: (N) nutrizionista; (EL) Erizain Laguntzailea * Lekua: Azkuna Zentroko "Iparragirre aretoa"				

Taula 17. OP-aren 2.sailean "Elikadura ohituren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa				
"Zer da jan beharko nukeena?"				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
17:00-17:30	Aldizkarietatik elikagaien argazki guztiak moztu	Elikadura osasuntsu eta orekatu baterakok elikagaien sailkapena burutu	Jokoa	- Aulkiak - Artaziak - Aldizkariak - Egunkariak - Zeloa - Proiektorea - N eta EL
17:30-18:00	"Semaforoa" Proiektorean agertzen diren 3 zutabeeen moztutako argazkiak sailkatu - Berdea: gomendatuta - Horia: neurritz - Gorria: debekatuta			
* Giza baliabideetan: (N) nutrizionista; (EL) Erizain Laguntzailea * Lekua: Azkuna Zentroko "Iparragirre aretoa"				

Taula 18. OP-aren 2.sailean "Elikadura ohituren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa				
"Elikagaiak ezagutzen"				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
17:00-17:30	Elikagaien manipulaziorako gomendioak eskeini	Elikagaien higienearen ezagutza areagotu	Ahozko azalpena	- Aulkiak - Ordenagailua - Proiektorea - N
17:30-17:45	Elikagaien manipulazioaren inguruko dinamika	Landutako gomendio eta jarraibideak praktikan jarri	Jokoa	- Elikagaiak - Sukaldeko tresneria
17:45-18:00	Sukaldatze teknikak erakutsi	Elikadura orekatu eta osasungarri baterako sukaldatze teknikak erakutsi.		
* Giza baliabideetan: (N) nutrizionista; (E) erizaina; (EL) Erizain Laguntzailea * Lekua: Julian de Ajuriagerrako Eguneko Ospitaleko sukaldia				

Taula 19. OP-aren 2.sailean "Elikadura ohituren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa

"Baratze ekologikoa"				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
17:00-18:30	"Baratze ekologikoa" Bakoitzak gogoko landare, barazki edo tuberkuluaren landatzea burutuko du.	Naturako elikagaiekin kontaktu zuzena izan -Manipulazioa ezagutu -Hazkuntza prozesua -Jakien jatorria ikasi	Irteera Debatea	- Ontziak - Lurra/haziak - Palak - Ur botilak - EL
18:30-19:00	Esperientziaren balorazio grupala.			

* **Giza baliabideetan:** (N) nutrizionista; (E) erizaina; (EL) Erizain Laguntzailea
 * **Lekua:** Bilboko Doña Kasilda Iturrizar parkea

Taula 20. OP-aren 2.sailean "Elikadura ohituren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifikoa

"Erosketak egitera!"				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
17:00-17:10	"Erosketak egitera!" Bosteko 2 talde burutu	Erosketak burutzeko taldekide bakoitzaren teknikak	Zerrenda bat sortu	- Aulkiak - Bolalumak - Orri zuriak - N eta EL
17:10-17:30	Egun bateko 4 otordu osasungarri eta orekatua burutzeko beharrezko elikagaien zerrenda burutu	amankomunean jarri		
17:30-18:45	Talde bakoitzeko 2 pertsona erosketak egitera joango dira. - Gainontzekoei erosketak burutzeko jarraibide eta trukoak eskeini (11. Eranskina)	Elikadura osasuntsu eta orekatu bat lortzeko, erosketetarako jarraibideak eskeintzea	Ahozko balorazioa	- EL - Ordenagailua eta proiektorea - E eta N - Erosketak egiteko poltsak
18:45-19:15	Erosketetatik bueltan beren taldekideek erosketak burutzeko tekniken balorazioa burutu	Erosketen momentua modu ordenatu eta zentzuzkoan burutzea	Azalpenak	
19:15-19:30	Jarraitutako teknikaren hutsune eta indarguneak adierazi	Elikagai osasuntsuak aukeratzea eta behar ez diren elikagaiak erostea ekiditea		

* **Giza baliabideetan:** (N) nutrizionista; (E) erizaina; (EL) Erizain Laguntzailea
 * **Lekua:** Azkuna Zentroko "Iparragirre aretoa"

Taula 21. OP-aren 2.sailean "Elikadura ohituren sailean" burutuko diren saioen kronograma espezifiko

"Master chef I, II, III, IV, V" (*)				
Ordua	Edukiak	Helburuak	Teknika	Materiala eta giza baliabideak
17:00-17:30	Burutuko den platerren diseinua + elikagaien zerrrenda.	Mantenugaien kontsumo egokiaren inguruko ezagutza behatu	Ahozko adierazpena	<ul style="list-style-type: none"> - Elikagaiak - Orri zuriak - Bolalumak - Sukaldeko tresneria - N eta EL
17:30-18:00	Erabiliko den sukaldatze teknikaren erabakia hartu	Sukaldatze teknika osasungarrien erabilera ebaluatu		
18:00-19:00	Sukaldatze momentua (1 ordu) "Lehiaketa"	Trebezia ebaluatu +	Sukaldatze tailerra	
19:00-19:30	<i>Platerren epaiketa:</i> <ul style="list-style-type: none"> - Aukeratutako elikagaiak - Dieta hipokalorikoa - Elikagaien manipulazioa - Sukaldatze teknika - Originaltasuna 	Aurreko sesioetan landutakoa praktikan jarri plater osasungarriak sukaldatuz.		

* **Giza baliabideetan:** (N) nutrizionista; (E) erizaina; (EL) Erizain Laguntzailea
 * **Lekua:** Julian de Ajuriagerrako Eguneko Ospitaleko sukaldeta
 (*) Sesio hauek 5 egun ezberdinetan gauzatuko dira, bakoitza egunean burutu beharreko 5 otorduak sukaldatzean oinarritutako delarik, hau da, "MASTER CHEF I"-ean gosaria, "MASTER CHEF II"-an hamaiketakoa, "MASTER CHEF III"-an bazkaria, "MASTER CHEF IV"-an azkaria eta "MASTER CHEF V"-ean afaria.

